

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5037

1805/2023 EBAZPENA, urriaren 25ekoa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Isidoro García Sánchez jauna izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko buru, aldi baterako, lau urte luzagarriz.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentearen ekainaren 26ko 1235/2023 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Barrualde-Galdakaoko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez. (2023ko uztailaren 28ko EHAA 143. zk. eta 2023ko abuztuaren 14ko BOE 193. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Isidoro García Sánchez jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Isidoro García Sánchez jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta 2023ko azaroaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luza-pena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2023ko urriaren 25a.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.